

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Oñ- ia'ren 14'an.

Batzar ontara euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landefetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe eta Etxegarai. Urgazletatik Ormaetxea jauna.

I.—Yabon eta iker-sailari dagozkien arlo batzuek begira ta aztertu ondoren, Euskaltzaindiak, arloan luze ari ta gero erabaki auxe artu du: J-taz idatziko dira itzauré abek: Jauna, jan, jañaitu ta beste idekoak. J-ta onen abozkera, irutara, euskalkietan, biurtu liteke: edo españetañenera edo prantzeztañenera edo laziotañenera.

Euskaltzaindiak euskaldunai otoi egiten die itzauréko j-ta ori laziotañenez erabiltzeko are geiago, abozkera ori oso ezagun dan erietan edo afigari ez deritzaienetan.

II.—La Haya deitzen dan Holanda'ko erian oraintxe gutxi dala, izkuntz-batzar nagusi bat izan da ta Urkijo jauna antxe azaldu zan Eusko-lkaskuntza ta Euskaltzaindiaren izenez. Urkijo jaunak esan digu angotxe batzañaldi ta gañerakoak oso gain-gaiñekoak izan dirala ta abetan noski gure euskera aitatu dala. Ardura aundia erabili dute ango batzarkideak, batzañaldiko gai guzitan bañan batez ere edo bestien gain, abetxek azaldu dira arduratsuen: *Fonetica*-ren bata-suna eta *Atlas Lingüístico*-en egipidea.

Leo Spintzer jaunak adierazi zuen, etzala ertsi ta urí ibili bear Atlas-ko lan abetan, prantzeztar batzuek deritzatenez, baizik lasai ta banarago izkelki bakoitzari dagokionez. Batzar-txikitan itzaldiak egin zituzten gure urgazle dan Saroihandi jaunak eta gure euskaltzainkide zaigun Lakonbe jaunak: aren gaia eus-

kal-aditza izan zan; onena beriz, aste, il ta urte aroaren izenak.

III.—Azkue jaunak irakuñi digu alako idazkitxo bat, esanik, Euskaltzaindia esker-zořetan dagola, geon artetik oraintxe joan zaizkigun bi gizon argitsu-uen ganontz. Bata Aureliano Galartza da. Gizon oni zor zaizkio Bizkai-Aldundiak ipiñi zuen euskeraren ikastaroaren lenbiziko oñak. Ofegatik Azkue jaunak beroni eskañi dio berak idatzirik daukan irakurgai *Latsibi*. Au ez da oraindik argitaratu eleztizalerik azaltzen etzaiolako: egileak noski gipuzkeraz idatziko balu, izango luke nork argitara bota. Beste gizon omengafia Juan Karlos Gortazar da. Onek, areta aundiz, Azkue jaunari lagun egin zion, bai Peru-Abarkaren itzulpenean, bai *Eguzkia nora* deitzen dan antzerkian, bai *Iztegi Aundiaren* lenbiziko lanetan.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzirik, amaitu da, otoitz egiñik, batzařaldia.

Bilbo'n, Bizkai - Aldundian, 1928'ko Ofiřa'ren 15'an.

Batzařaldira auřekoak eta Gabriel Manterola urgazlea datoz.

I.—Jořaiřa-ren lenbiziko egunez amaitu zan *Euskal-Zenbakintza* gai duten lanen epea. Lan abek aztertzeko izendatu zan batzordeak, bere erabakia dakar. Bi lan etoři dira: bat euskeraz idatzia; bestea alemaneraz. Ez batak ez besteak ez dute epailleen gogorik bete, utsune batzuk badituztelako ta naiko ezagun zitzazkien oarpede batzuek aitatu ez dituztelako. Ala ere, saritu nairik egile-lanak, badutelako beste alde beren osamena, auxe erabaki da: 350 peseta emango zaiz-